

# NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNAREN DEIALDIARI BURUZKO OHIKO GALDERAK

## DEIALDIA

- Nola jakingo dut noiz egingo den deialdia?
- Zer da nazioarteko mugikortasunaren deialdia?
- Zer ezberdintasun dago programen artean?
- Zer esan nahi du ikasketa-aldia aitortuko didatelako horrek?
- Aukeratzeko ahal dut zer herrialdetara joan naitekeen?
- Nola jakingo dut nire titulazioarekin nora joaten ahal naizen?
- Nork aukeratu ditu destino horiek eta nire titulazioarentzako postu-kopurua?
- Nire titulazioarentzat eskaintzen diren destinoei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, zer egingo dut?

## BALDINTZAK

- Zer baldintza bete behar dira parte hartzeko?
- Eta irakasgai bat baino ez badut falta 60 kredituak osatzeko?
- Unibertsitate batzuek hizkuntza-maila bat eskatzen dute. Zer egin behar dut?
- Zer hizkuntzatan egiaztatu behar da hizkuntza-maila jakin bat?
- Joan den ikasturteko mugikortasun deialdian egin banuen mailaketa-proba, proba horrek balio du aurten?
- Joaten ahal naiz aurreko batean joan banaiz?

## LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- Zer laguntza ekonomiko edukiko dut?

## ESKAERA

- Noiz eta nola egiten da eskaera ?
- Eginez gero, aldatzen ahal dut nire eskaera?
- Nola esleitzen dira postuak?
- Eta ez banago ados esleitu didaten lanpostuarekin, erreklamaziorik egiten ahal dut?
- Posturik gabe geratu naiz, baina aldi berean ikusten dut postu batzuk ez direla bete. Horietakoren bat eskuratzen ahal dut?
- Ikaspostu bat esleitu didate, baina ikusten dut nire titulazioan orain gehiago interesatzen zaidan beste postu bat hutsik geratu dela. Postu hori eskuratzen ahal dut?
- Eta azkenean postuari uko egitea erabakitzen badut, baina epea kanpo banago?

## ETA ORAIN, ZER?

- Postu bat esleitu didate eta onartu egin dut: orain zer egin behar dut?
- Xedeko unibertsitatean ere matrikula egin behar dut?
- Behin xedeko unibertsitatean nagoela, ikasketa-konpromisoaren irakasgaiaren bat aldatu nahi badut, zer egin behar dut?
- Xedeko unibertsitatean irakasgaia ez badut gainditzen, NUPen horren ordez matrikulatu nuen irakasgaiaren azterketa egiten ahal dut?
- Eta sei hileko edo urte bat gehiago gelditu nai badut, gelditzen ahal naiz?
- Itzultzean, kalifikazioak niri emango dizkirate?

## DEIALDIA

### Nola jakingo dut noiz egingo den deialdia?

Informazioa urtero argitaratzen da unibertsitatearen web-orrialdean: [NUP](#). Normalean urria-azaroetan egiten da deialdia. Aipatu orrian argitaratzen den egutegiak balio ahal dizu erreferentzia moduan.

### Zer da nazioarteko mugikortasunaren deialdia?

Beste herri batera, beren titulazioko seihileko bat edo ikasturte oso bat egitera joango diren ikasleak aukeratzeko deialdi bat da, programa hauetako baten barruan: ERASMUS, ISEP, Palafox, Martín de Rada, edo Aldebiko Hitzarmenak. Laguntza ekonomiko bat jasotzen dute beren herrialdearen eta xedeko herrialdearen bizitza-kostuaren ezberdintasuna parekatzeko. Berezitasuna da itzultzean, ikasleari aitortuko zaiola atzerrian egin duen ikasketa-aldia.

### Zer ezberdintasun dago programen artean?

Programa bakoitzak alde geografiko baten postuak biltzen ditu: Erasmus Europar Batasunekoak, Palafox Latinoamerika, Martín de Rada Asia-Barearen ingurua. Hala ere, ezaugarriak eta balintzak oso antzekoak dira.

### Zer esan nahi du ikasketa-aldia aitortuko didatelako horrek?

Ikasleak xedean egingo dituen irakasgaiak NUPeko irakasle batekin hitzartzen dira, eta hitzarmen honek dakar atzerrian egindakoaren aitortza automatikoa.

### Aukeratzen ahal dut zer herrialdetara joan naitekeen?

Ez, titulazio bakoitzak bere xedeak ditu.

### Nola jakingo dut nire titulazioarekin nora joaten ahal naizen?

Web-orrialde honetan [xedeak](#) ikusiko dituzu, titulazio bakoitzean. Unibertsitate bakoitzean, ikusiko duzu zenbat postu eskaintzen diren, kasu bakoitzean zer hizkuntza-maila eskatzen den, eta aipatu unibertsitateko irakasle arduraduna zein den, hau da, hango ikaspostuetako bat esleituz gero han egingo dituzun irakasgaiak aukeratzen lagunduko dizun irakaslea zein den.

### Nork aukeratu ditu destino horiek eta nire titulazioarentzako postu-kopurua?

Titulazio bakoitzak izenpetu ditu hitzarmen batzuk bere interesekoak diren bete hainbat unibertsitatekin. Hitzarmen horietan finkatzen da unibertsitate bakoitzak zenbat ikasle trukatzeko dituen, trukearen iraupena eta kasu bakoitzean eskatzen den hizkuntza maila.

### Nire titulazioarentzat eskaintzen diren destinoei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, zer egingo dut?

Interesatzen zaizkizun unibertsitateen web-orrialdeak begiratu beharko dituzu. Aurreko urtean unibertsitate horietan egon den ikaskide batekin hitz egin dezakezu, baita ere.

## BALDINTZAK

### Zer baldintza bete behar dira parte hartzeko?

Nahi duzun postuaren hizkuntza mailaz aparte, 60 ECTS EAZ eta Zuzenbidearen kasuan, edo 72 ECTS gaindituta eduki beharko dituzu.

Horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean eduki behar dituzu gaindituta, eta aurreko ikasturteko uztailearen 31n, zure titulazioaren ondoko ehuneko hauek eduki beharko dituzu gaindituta:

- Ikasturteko kredituen % 60, ikastegi hauetako ikaslea bazara: TIIGMET, NIGMET edo Osasun Ikasketen Fakultatea.
- Ikasturtean matrikulatutako kredituen % 80, gainerako titulazioetako ikasleentzat.

Aitortu, baliokidetu eta egokitutako kredituak ez dira aintzat hartuko kalkula egiterakoan.

### Eta irakasgai bat baino ez badut falta 60 kredituak osatzeko?

Ez dituzu betetzen urte horretako deialdian parte hartzeko baldintzak. Hurrengo urteko deialdian parte hartzen ahalko zenuke. Garrantzizkoa da kontuan hartzea zer seihileko edo ikasturtetarako eskaintzen den postu bat.

### **Unibertsitate batzuek hizkuntza-maila bat eskatzen dute. Zer egin behar dut?**

Deialdian parte hartu baino lehenago egiaztatu behar duzu hizkuntza maila ematen duzula, hortaz [egiaztatu beharko duzu eskaera egin baino lehen](#). Horretarako, daukazun agiriak aurkezten ahal dituzu, edo Unibertsitateak antolatzen dituen mailaketa-proba batean parte hartu.

### **Zer hizkuntzatan egiaztatu behar da hizkuntza-maila jakin bat?**

Ingelesa, frantsesa eta alemana.

### **Joan den ikasturteko mugikortasun deialdian egin banuen mailaketa-proba, proba horrek balio du aurten?**

Bai.

### **Joaten ahal naiz aurreko batean joan banaiz?**

Agian bai, agian ez; ERASMUS programarekin joan bazara, postu bat eskatzen ahalko duzu Erasmus Praktiketarako. Edonola ere, ERASMUS programarekin, modalitatea edozein dela ere, gehienez 12 hilabeteko epea edukiko duzu. Gainerako programetan parte hartu ahalko duzu, baldin eta zure titulazioan postu hutsik geratzen bada.

## **LAGUNTZA EKONOMIKOAK**

### **Zer laguntza ekonomiko edukiko dut?**

Kontsultatu [web](#).

## **ESKAERA**

### **Noiz eta nola egiten da eskaera ?**

Deialdia urriaren bukaeran izaten da. Informazioa Unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzen da, eta eskaera online egiten da. 15 destino eskatzen ahal dira; ongi pentsatu postu bat lortzeko daukazun aukerak, esleitzeko orduan balioetsiko direlako ikasketa-espeditentea eta eskaeran jarri duzun lehentasun-ordena. Gogoratu eskatzeko epea bukatu eta gero EZIN DAITEKEELA ALDAKETARIK EGIN

### **Eginez gero, aldatzen ahal dut nire eskaera?**

Eskatzeko epea bukatu bada, ez.

### **Nola esleitzen dira postuak?**

Eskaera egin eta gero, ikasleak baldintzak betetzen dituela baieztatzen da (60 edo 72 ECTS gaindituta), hizkuntza maila eta gainditutako kredituen ehunekoak. Ondoren, onartutakoen zerrenda argitaratzen da. Gero, eskaerak ordenatzen dira ikasketa-espeditentearen batez besteko notaren eta lehentasun-ordenaren arabera.

Azkenik, ikasleak adierazi behar du, idatziz, postua onartzen duen edo uko egiten dion, horretarako ezarrita dagoen epean.

### **Eta ez banago ados esleitu didaten lanpostuarekin, erreklamaziorik egiten ahal dut?**

Bai, erreklamazioak egiteko epea badago. Batzorde batek ebatziko ditu. Nazioarteko Harremanetarako eta Lankidetzarako errektoreordeak, Kanpo Harremanetarako Ataleko buruak, Atale horretako kudeaketari batek eta NUPeko ikastegi bakoitzeko dekanorde banak osatuko dute batzordea.

### **Posturik gabe geratu naiz, baina aldi berean ikusten dut postu batzuk ez direla bete.**

#### **Horietakoren bat eskuratzen ahal dut?**

Postu hutsak onartuta dauden baino itxaron zerrendan geratu diren ikasleei esleitzen zaizkie.

### **Ikaspostu bat esleitu didate, baina ikusten dut nire titulazioan orain gehiago interesatzen zaidan beste postu bat hutsik geratu dela. Postu hori eskuratzen ahal dut?**

Ez, postu hutsak onartuta dauden baino itxaron zerrendan geratu diren ikasleei esleitzen zaizkie.

**Eta azkenean postuari uko egitea erabakitzen badut, baina epez kanpo banago?**

Ezarritako epetik kanpo uko egiten badiozu, ezin hartuko duzu parte hurrengo mugikortasun programetan.

**ETA ORAIN, ZER?****Postu bat esleitu didate eta onartu egin dut: [orain zer egin behar dut??](#)**

Informazio bileretara joan behar duzu. Han azalduko dizkizute betebeharrak, egin beharreko urratsak, alderdirik garantzizkoenak eta beste honi buruzko dokumentazio emango dizute:

**[Ikasketa konpromisoa](#) eta matrikula:**

Ikasketa konpromisoa zure mugikortasun-arduradunarekin batera bete behar duzun agiri bat da; hor esan behar duzu NUPen zer irakasgaitan matrikulatuko zaren, alde batetik, eta bestetik destinoan zeintzuk egingo dituzun, itzultzean aitortuko zaizkizunak.

Kontuz ibili behar duzu konpromisoa betetzean. Kontsultatu web-orrialdearen argibideak; garrantzizkoa da sartu behar duzun kreditu-kopuru txikiena zein den jakitea, baita zure titulazioa aitortzeko irizpideak ere. Informazio guztia web-orrialdean dago.

Normalean uztailean betetzen da, eta matrikula egin behar duzunean, ohiko aldian, irakasgai horiek preinskribatuta daudela agertuko zaizu, eta matrikula egin beharko duzu.

Xede unibertsitatera bidali behar duzun dokumentazioa: harrera, ostatua hartzea, ikasketa programa eta abar, eta Kanpo Harremanetarako Atalera

Ostatua, aseguru medikoa, eta, hala badagokio, bidatua, nola kudeatuko duzun.

Zenbat diru jasoko duzun, eta noiz.

Xede unibertsitateari buruzko informazio gehiago jasotzeko, aurreko urtean han egon diren NUPeko ikasleekin egon zaitezke, edo NUPen trukean dauden nazioarteko ikasleekin. Kanpo Harremanetarako Atalean izenak eta helbideak emango dizkizute. Interneten ERASMUS foro asko dago.

**Xedeko unibertsitatean ere matrikula egin behar dut?**

Bai, baina ez duzu tasarik ordaindu behar. Matrikulan sartuta ez dauden jarduerak ordaindu behar dituzu.

Informazioa behar izanez gero, ikasketa-koordinatzaile bat edukiko duzu, eta hari eskatu beharko diozu informazio gehiago.

**Behin xedeko unibertsitatean nagoela, ikasketa-konpromisoaren irakasgairen bat aldatu nahi badut, zer egin behar dut?**

Hilabetea daukazu, iristen zarenetik, egiteko. Harremanetan jarri behar duzu zure mugikortasun-arduradunarekin, eta onartzen badu, posta bat bidali behar du Kanpo Harremanetarako Atalera, jakinarazteko.

**Xedeko unibertsitatean irakasgaia ez badut gainditzen, NUPen horren ordezt matrikulatu nuen irakasgaiaren azterketa egiten ahal dut?**

Ez.

**Eta sei hileko edo urte bat gehiago gelditu nai badut, gelditzen ahal naiz?**

Ez mugikortasun-programa baten babesean, hitzarmen bakoitzan ezartzen duelako trukearen iraupena. Gelditzea erabakitzen baduzu, zure kontura egin beharko duzu, eta gero ikasketak aitortuko zaizkizun ziurtatu gabe.

**Itzultzean, kalifikazioak niri emango dizkidate?**

Unibertsitate batzuek ikasleari ematen dizkiote, eta beste batzuek Kanpo Harremanetarako Atalera bidaltzen dituzte. Bi kasuetan mugikortasuneko arduradunari bidaltzen zaizkio, egindako irakasgaien aitortza gauzatzeko, eta ondoren Gradu Ikasketen Atalak ikaslearen espedientearen sartzeko ditu. Hurrengo matrikula egiteko garaian ez badira oraindik kalifikazioak jaso, Gradu Ikasketen Atalak,

mugikortasun programa batean egon diren ikasleek matrikula egin ahal izan dezaten, eta horregatik eta horretarako bakarrik, gaintitu baten baliokidea den "ERASMUSEN ZAIN" batekin kalifikatuko dira irakasgai guztiak, bat izan ezik, zeina EZ AURKEZTU batekin kalifikatuko baita. Esan gabe doa, ikaslearen egiazko notak espedientean sartzen ahal direnean, Atala ukitutako pertsonarekin jarriko da harremanetan eta matrikula erregularizatuko da.

Mugikortasuneko programan irakasgairik bat ez baduzu gaintitu, ez da beharrezkoa berriz matrikulatzea hurrengo seihilekoan. Begi-bistakoa denez, aipatu irakasgaia beharrezkoa bazaizu uneren batean, matrikulatu beharko duzu irakasgai horretan, baina ez da derrigorrezkoa truketik bueltan matrikulatzea.